

Inés
Rikate
Bozeramaileak



GUREKIN JAIREN MOZIOA, 2012ko martxoaren 28ko udalbatzan ebaztekoa

Gurekin Jai-ko kideok nazkatuta eta zorabiatuta gaude indar polizialen eta Audientzia Nazionaleko hainbat epailen aldetik jasaten ari garen jazarpena dela-eta.

Hona hemen jasandako guztiaren nondik norakoak:

1. **Ekainaren 26a, pelaiosan eguna:** 2011ko Pelaiosanetan Ertzaintzak 20:00ak aldera presoan sakabanaketaren kontrako argazkiak zituen pankarta kendu zuen txosna batetik. Une horretan, bertan zeuden zenbait lagun identifikatu zituen.
2. **Pelaiosanen ondoren:** Txosnagunearen arduradun moduan izena eman zuen Gurekin Jai-ko kideari, *terrorismoaren gorazarrea* deritzaiona egotzi, eta horren akusaziopean diligentziak irekitzen zizkiotela jakinarazi zioten.
3. **Urriaren 5a:** aipaturiko Jaiko laguna Audientzia Nazionalera deitu zuten, inputatu gisa deklaratu zezan.
4. **Urriaren 28a:** Pelaiosanetan turnoa egiten ari zela identifikatu zuten beste lagun bat Audientzia Nazionalera deitu zuten deklaratzera testigu moduan.
5. **Azaroaren 4a:** Gurekin Jai-ko beste hiru lagun Audientzia Nazionalera inputatu gisa deklaratzera deitu zituzten, *terrorismoaren gorazarrea* deritzaionaren akusaziopean. Zorionez, azken hiru kide hauen aurkako inputazioa bertan behera geratu zen.
6. Jakin berri dugu, datorren **apirilaren 20an**, inputazioak dirauen Gurekin Jaiko kidea epaituko dutela Auzitegi Nazionalean *terrorismoaren gorazarrea* deritzaiona egotzi, eta horren akusaziopean.

Eraso hauek, Euskal Herriko txoko askotan gertatu ohi diren beste eraso askorekin batera, Gurekin Jairen funtsean dugun elkartasun printzipioaren aurkako erasoak dira. Etxetik urrun dauden herritarrenganako elkartasuna ez baita delitua. Audientzia Nazionala jo eta ke ari da preso eta iheslarienganako elkartasun adierazpen oro kriminalizatu nahian, baina ez dute elkartasun hau suntsitzea lortu ez eta lortuko ere!

Agerikoa da urrats hauetako bakoitzak urduritu gaituela eta geure eguneroko lanean oztopo eta traba garbiak direla. Madrilera egindako hamaika joan-etorri, deklarazioen presio eta bestelako urduritasun eta ezinegonen ondoren, epaiketaren azken berri latza iritsi zaigu Madriletik oraindik orain.

Azaldu berri dugun irakurketaren ondoren, Gurekin Jaiek ondoko eskaerak egin nahi dizkio Zarauzko udalbatzari:

- Gurekin Jaiek herriko festak biziarazten eta indartzen egin duen eta egiten duen lan itzela errekonozitzea eta aintzat hartzea.
- Azaldu berri dugun egoeraren aurrean eta halako bestelako aurrean, udalbatzak kaltetuei erabateko babesa eskaintzea arlo guztietan, eta jarrera hori publiko egitea, antolatuko diren ekintza ezberdinetan parte hartuz.
- Epaiketa bera eta honen inguruko auzia bertan bera uzteko eskatzea Audientzia Nazionalari berari.

Gurekin Jai

Zarautzen, 2012ko martxoaren 21ean

Ganix Gesalaga 72.454.603A

Bilduko Bozeramaileak
Ezda